



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN MAHASTIEN EGOERA, 2023/08/09

ARABAKO ERRIOXA

Araba uda egokia izaten ari da mahastiaren garapenerako eta bilakaerarako; izan ere, duela gutxiko bero boladek zenbat eta iparralderago egon, orduan eta eragin txikiagoa izan dute. Gainera, zaparrada edo euri txikiren batek eta gaueko tenperatura leunek arindu egin dituzte arrastaka daramagun lehortearen ondorioak, eta mahastiak etenik gabe edo estres egoera aipagarrikerik gabe hazi ahal izan dira.

Udaberriaren amaieratik izandako bero goiztiarren ondorioz, mahastia aurten oso goiz aldatu da kolorez, eta loratze eta mamitze faseetara oso aurreratuta iritsi da. Uztaila, oro har oso beroa izan arren, ez da hain beroa izan Araban; izan ere, egunen batean tenperatura oso altuetan egon arren, gauez freskatu egin du, eta horrek garapenaren bilakaera harmonikoagoa ahalbidetu du.

Gauzak horrela, Arabako Errioxako mahastiak apurka-apurka jarraitzen du zikloa, etenik gabe. Abuztuko lehen egunetan, gaueko tenperaturak freskoak izan dira, eta egunekoak, berriz, udako mugaren barruan egon dira, baita ohi baino beherago ere, eta hori oso positiboa izan da.

Gaur egun, Arabako Errioxako mahastia heldutasun betean dago (M egoera). Fenologia hori, pixka bat aurreratuta badago ere, ez dago hain aurreratua azken urteekin alderatuz gero.

Osasun egoera, oro har, oso ona da, eta ikusten den mahats lagina handia da, batez ere besorakoan. Horren ondorioz, mahastizain askok bakanketa selektiboak egin dituzte, errendimenduak kontrolatzeko eta heldzea errazteko.

Uztailaren hasierako txingorrak kaltetutako Bastidako mahastiak oso bilakaera ona izaten ari dira. Zona jakin batean kaltea nabarmena izan bazen ere, mahats bilketa egin arte ezustekorik ez badago, udalerrri horretako mahasti guztietan lortu ahal izango dira kanpaina honetarako ezarritako gehieneko errendimenduak.

ARABAKO TXAKOLINA

Arabako iparraldean, zehazki, Arabako Txakolina Jatorri Deituraren eremuan, uda egokia izaten ari da mahastietarako. Egia da giroko hezetasun handiak, goizeko lainoek eta prezipitaziodun ekaitz egunek gorrina garatzen erraztu dutela, txakolin eremuan hain ohikoa dena. Nolanahi ere, gaixotasun honen intzidentzia ohikoa baino txikiagoa izan da; izan ere, gorrin larbatuaren erasoan ondorioz ekoizpenaren zati bat galdu duten lurzati gutxi batzuetara mugatu da. Zurinak, arazoak sortu ohi dituen beste gaixotasun fungiko batek, normaltasunaren barruan izan du eragina, baita mahastiari eragiten dioten beste gaixotasun edo izurrite batzuek ere; beraz, esan daiteke une honetan osasuna, oro har, apartekoa dela, baita Arabako Txakolinaren eremuan ere.

Mahats beltzaren egungo egoera fenologikoa ia heldutasun betearena da (M2). Hondarrabi Zurian, barietate ugariagoa den horretan, baiak erabat koloreztatzeko egun gutxi falta dira. Errendimenduei dagokionez, oro har, normaltasunaren barruan egongo dira, eta udaberriaren hasierako izozteak jasan zituzten mahasti batzuetan eta gorrinaren ondorioz kalte handienak izan dituzten mahastietan soilik izango dira murrizketak.

Beraz, bai Arabako Errioxan, bai Arabako Txakolinaren eremuan, 2022ko kanpainaren ildotik gabiltza: zikloa amaitu arteko 40-45 egunetan baldintzak ez badira ohiz kanpokoak, mahats bilketa pixka bat aurreratuko da eta errendimendu egokiak izango ditu.

Aste honetan, gutxienez egun batzuetan, bero bolada berri baten eraginpean egongo gara. Heldutasunera iritsi ondoren, hau da, gaur egungo egoerara iritsitakoan, mahastiak muturreko beroekiko sentikortasun txikiagoa badu ere, tenperatura altu horiek heltzearen bilakaeran duten eragina ikusi beharko da.

Guardia, 2023ko abuztuaren 9a

MAHASTIZAINNTZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA